

Urrutirako betaurrekoak, gertukoa ikusi gabe

Kataluniara begira, han egiten dutenak guretzat leihoren bat zabal dezakeela iruditzen zaigu. Baina ezin da ahaztu Madrilek gure askatasunei jarritako giltzarra nolako pisua duen. Duela zortzi egun, Aieten egindako agerraldian, hainbat lagunek adierazi zuten 8 eta 21 urte arteko espetxe zigorrak eta milaka eurotako isunak galdegin dituela fiskaltzak 48 euskal herritarrentzat.

Presoen babes sare deritzona osatzen duten taldeetako kideak daude

horien artean. Eskuak burura eraman ditugu fiskalaren eskaeren berri izatean. 48 horietatik, gutako askok ezagutzen du norbait: laguna, lankidea, lankide ohia edo besterik gabe ezaguna duelako. Eskuak burura eraman genituen duela hiru urte pasatxo ere, irailaren 30eko goiz hartan, atxilotu ziztuztenean.

Bada garaia, ordea, eskuak burutik jaitsi eta lanean jartzeko. Asteak daromatzen Kataluniara begira, eta Espainiako piztia bertan egiten ari denaren

berri lehendik badugula diogu. Horrek nolabaiteko prestigioa emango baligu bezala. Ez gaitzezen ahaztu piztia nolako den, eta oraindik gai dela dakizkizun horietakoak egiteko.

48 auzipetuek, herri honetako beste hainbatek bezala, urrun edo preso ditugunekiko sareak sortzen asmatu dute. Erantzun dezagun dagokigun mailan, erakuts diezaiegun ondoan gaituztela. Etxean gertatzera doanak ez gaitzala, behintzat, kanpora begira harrapatu. •

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Sarrerarik gabeak

Joxean Agirre

Askotan iritsi ohi gara berandu historiaren hitzorduetara. 68ko Maiatzera hilabete batzuen atzerapenarekin heldu nintzen, eta, gertakari hartaz beroturik hitz egiten entzuten nituenean, amorratu egiten nintzen. Sasoi horretan izan nuen Samuel Beckett ezagutzeko aukera ere. Falstaff edaritegira joaten zen ilunabarrean bere lagun irlandarrekin garagardo batzuk edatera. Beti joatekotan, baina ez nintzen joan eta damu hori daramat gainean. Bazter batetik begira egon izan banintzaio, gaur auskalo zer ipuin kontatuko nituen idazleari buruz.

Ez nituen Paco Ibañez eta Imanol Olympian kantatzen ikusi, baina tira!, urte batzuk lehenago Imanol Lasarteko gure ikasle-etxera etorri ohi zen afaltzera eta errezitaldi pribatuak ematen zizkigun.

Ez nintzen sasoi hartan Larraizko “akelarre” famatuan egon, baina Gaur taldeak Barandiaran aretoan bere lehen erakusketara zabaldu zuenean hantxe nengoan eta gogoratuta bakarrik paparra puzean zait.

Badakit beste batzuk kosmopolitagoak direla eta Woodstockeko jaialdian egon ez izanaz damutzen direla, edo Jimi Hendrixen Monterreyko kontzertuan bere gitarrari su eman zion hartan, edo Sex Pis-

tolsen lehen aldiz “Good Save” kantatu zuenean. Tira! Niri ez zitzaizkidan hutsegite horiek samingarriak iruditzen.

Gaurkora etorri, aurten hiru aldiz egon naiz Katalunian eta urriaren 1ko hitzordua huts egin izana egiten zait mingarri. 1980an Amurizak lehen txapela jantzi zuenetik egon naiz Txapelketa Nagusiko final guztietan, lanera joanda, egia da, baina han. Aurtengoan sarrerarik gabe gelditu naiz eta gogorra egin zait. Elkartekoei proposamen bat: zerrenda bat zabaldu behar lukete aurten sarrerarik gabe gelditu garenontzat, lau urte barru lehen-tasuna izan dezagun. Eskerrik asko. •